

ETSAIAK

Ainbeste mota diran zomorro ugariak naikoa izango ziran munduko landara, abere eta gizakiak ilteko, baiña zomorroak be euren arerio edo etsaiak daukez eta orrelan lortzen da izadiaren dendu edo ekilibrioa.

Aldi baten izozte edo lei ikaragarriak izan ziran eta ortik etorri zan zomorroen ondamendi bat. Orain dirala 300 milloi urte, karbonifero aldian, ba-ziran zomorroak eta orduko narrazti aundiak ez eutseen bildurrik. Ondoren 200 milloi urteetan asko ugaritu ziran zomorroak. Orain 150.000 urte muzkerrak agertu ziran eta oneik zomorro-jale aundiak ziran.

Eun milla urte geroago uztan kalteak egiten asi ziranen asi zan gizakia euren aurka jokatzan.

Asieran, XIX gizaldiaren aurretik ez egozan sareak baiño burruka orretarako, baiña gaur kimika-bideak dagoz: sulfato de cobre, nikotin, kare bizia... Tximist-indarrak be lagundu dau.

XX gizaldian jakitunak, entomologoak, lagundu dabe asko zomorroen aurka. Burruka orretarako beste zomorro batzuk artu dabez lagun, esaten dan lez “nire arerioaren arerioak, nire gaganak dira”.

Riley jakintsuak erabili eban lenengoz 1874n. urtean olako zomorro-jale bat eta Ingalaterra'tik Zelanda Barri'ra bialdu eban amona mantangorria. Ango zorriak ilteko. Ondo urten eban gauzeak.

Amona mantangarriak mesede asko egin dau munduan. “Jainko Onaren zomorroa” esaten jako orregaitik. Ego gorriak daukaz, agoa gorrizkea, zazpi puntu baltz gaiñean, eta luzeerea zazpi mm. Onek zorri asko jaten dau. Baiña baratz bat ondatu eban berak eta beste mantangorri bat ekarri eben lengoa galtzeko (1931). Onek bestearen soiñean egiten ebazan arrautzak eta urtetan eben kokoak oso jatunak ziran, eurak dagozen soiña eta ingurua jaten ebezan.

1895n. urtean Ameriketan agertu zan koko bat mendi osoak kimatzen ebazana eta Atlantik itxasoa igaro eban Europa'ra zabaltzeko. Batu ziran entomologoak eta arerio jakon zomorroa aurkitu eutsoen.

Gaur mundu osoan dabiltz zomorroak zomorroen ondatzaille. USA'n bakarrik milla jakitun dabiltz burruka au indartzen.

Iñurri aragi-jaleak dira arerio Ameriketan eta Afrika'n. Milloika aginlari alkartzen dira eta edozein bizidun ondatzeko gai dira.

Mantis lekaimea da orrein arerio, baiña beste asko agertu dira.

Zapoak eta igelak be zomorro-jale onak dira: Illun-nabarretan etxe argidunen inguruan egoten dira zomorro egalaria argitara noiz etorriko, kristala jota lurrera jausten danean ureratzen da zapoa eurak jateko.

Afrika'n kamaleoia da zomorro eiztari ona, euliak edo kokoak ondora etorri artean geldidageldi egoten

da ezkutauta, eta gero, miña luzatuz, arrapatzen dauz zomorroak.

Muzkerrak be zomorro-jale onak dira, esan dogun lez.

Ba-dagoz beste pizti eta abere batzuk be zomorro-jale diranak, esaterako satorrak eta saguzarrak.

Eta txoriak, iñurri-txoria esaterako. Oneik dira zomorroen areriorik gogorrenak. Egaztien pikuak beti arrapatzen dauz zomorroak, eltxoak, eta olakoak. Txoriak ondo aztertzen dabez zugatzen enbor-inguruak be zomorroak aurkitzeko, esaterako okillak.

Txepetxak be, txikia izan arren, zomorro asko jaten dauz eta euren arrautzak be bai. Bardin egiten dabe gabontzak.

Beste txori batzuk, uzta apur bat jaten dabelako kaltegarri dirala uste izaten dogu, baiña asko geiago laguntzen dabe zomorroak janda.

Abereen gaiñean be ibiltan dira txoriak, an dagozan zomorroak jaten.

Enarak edo eleiak gure artetik joango ba-lira, euliak laiñoen antzera etorriko litzakiguz!

OLAZAR'tar Martin'ek

